

i
ra
ku
rri
matte

zumaiako literatur aldizkaria



irakurri matte

zumaiaiko literatur aldizkaria

AURKIBIDEA

aitzinsolasa	3
irakurri nahi, matte? Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo	4
kontu-kontari Itsasoari	6
hala bazan... Zer egiten dute gurasoek gu lo gauden bitartean?	8
kantu-kantari Bazen behin	11
irakurketa-proposamena Belarraren ahoa	13
literaturaz Haizeak eraman ez ditzan...	15

Argitaratzailea:



Laguntzailea:



Zumaia Udalak

Diseinua: Mari Bernal eta Roberto Gutierrez
Maketazioa: Roberto Gutierrez
Azaleko irudia: Luna Carvajal
Lege-gordailua: SS-821-2008
Inprimategia: Antza S.L.

AITZINSOLASA

Txinparta

Irudimenaren hegalek askatasuna eta fantasia izan ohi dituzte amets, eta amets horri irmo oratu nahian ekin diogu ibilbide honi.

Gaitza da iluntasuna argitzea, gau ilun itxia egun eguzkitsu eder bihurtzea, barne-mundua argitara ekartzea. Haatik, ezinbestekoa da amets hau egi bihurtuko bada. Gauzak horrela, zailtasun oro gainditu eta bide malkartsuan aurrera egitea erabaki dugu. Kaxan sartuta egoten den panpina nola, halatsu topatu ditugu bidelagunak; alabaina, kaxaren botoiari eman eta malgukiak berehala jarri ditu, indarrez gainera, proposatu diegun bidean. Jaso bezate, guztiek, bada, gure esker ona. Bihoakio gure esker ona, halaber, udalari. Izan ere, bestela ezinezkoa zatekeen.

Halarik ere, gure bidaide izatera animatzeko ere baliatu nahi dugu aukera hau. Amets honetako partaide izan nahi duen orok ateak parez pare ditu zabalik. Horratx gure eskaintza, batzuen gozagarri behintzat izango delakoan.

Esku artean duzun hauxe da, bada, gure ametsaren eta bidaideen lanaren emaitza. Gustuko baduzu, murgildu orrialde hauetan eta gozatu askatasunaren eta fantasiaren bila aritu diren bidaideen irudimenaren fruituekin.

BURUKO HURA NORK EGIN ZION JAKIN NAHI ZUEN SATORTXOA



ARGITALETXEA: Kalandraka
SAILA: Amets egiteko liburuak
ARGITARATUTAKO URTEA:
Jatorrizkoa 1989
Itzulpena 1999
ITZULTZAILEA: Koldo Izagirre
EGILEA: Werner Holzwarth
ILUSTRATZAILEA: Wolf Erlbruch
EDIZIOA: Kartoizko azalezko koadernazioa

Ipuin labur hau oso atsegina da haur hezkuntzako umeentzat, oso gogoko dute 2 urtetik aurrerako haurrek. Adin horietan kakaren inguruan hainbat kontu izaten dituzte, eta hain justu, beraienez hain “erakargarria” den zerbait buruz ipuin bat dagoela jakitean adi-adi entzuten dute; izan ere, modu simple batez “tabu” den gaia azaltzen digu. Haurren artean kakaz hitz egiteak lotsa eta barregura sortzen baitu askotan.

Istoriotxo honen hasieran satorra zulotik irteten ari den une berean, norbaitek kaka egiten dio burura. Hortik aurrera bere kezka bakarra buruan duen kapelatxo hori nork egin dion jakitea izango da. Satorrak ikerketa bat abiatuko du. Horretarako, inguruan dauden animalia guztiei galdetuko die ea nork egin dion buruko hura. Animaliek beraiek izan ez direla frogatzeko kaka egingo dute buruan duenarekin konpara dezan. Aniztasunaren adierazle dira kaka horiek, kolore, tamaina eta usain nahiz zarata (onomatopeia bidez adierazita) desberdineko kakak aurkezten dizkigute, baita kaka horien aurrean satorrak sentitzen dituen emozioak eta sentsazioak ere. Azkenean, kaka dastatzen ari diren bi eulirekin

topo egin eta hauei galdetzen die buruan duen kapela nork egina izan daitekeen. Euliek burukoa dastatu eta bere ikerketari bukaera ematen lagunduko diote.

Marrazki erakargarriak agertzen zaizkigu. Kolore askokoak eta mugimendua eta adierazkortasuna dutenak. Satorraren egoera animikoa oso adierazgarria da, uneoro haserre ikusten baitugu, harik eta bere burukoaren egilea nor den jakin arte; orduan, aurpegia zeharo aldatzen zaio eta satisfazio eta maltzur keinua jartzen du.

Aipatu beharrekoa da ipuina bi modutara irakur daitekeela. Batetik, letra larriz kontakizunaren hari nagusia kontatzen da. Bertan, animaliei eginiko galdera-erantzunak dira nagusi, eta irakurketa modu hau izango litzateke txikienei (2-4 urte) irakurriko geniekeena. Bigarren irakurketa, parentesi artean eta letra etzanez agertzen da, eta aurreko letra baino txikiagoa da. Bertan animalia bakoitzak eginiko kakaren deskribapena agertzen da, baita satorrak kaka horien aurrean dituen sentazioen deskribapena ere. Bigarren irakurketa aurrekoaren osagarria da; beraz, irakurketa hori gabe ere eta ilustrazioei begiratuta, ipuina oso ondo uler daiteke. Hala ere, dibertigarria da kakaren deskribapena egiteko erabilitako hizkuntza.

Istorio honek zineman zein nobeletan hain ohikoa dugun amarru polizialaren kutsua du. Detektibe batek gaizkilea nor den jakiteko ikerketa bat egingo du. Horretarako, susmagarriak itauntzen ditu, eta azkenean, froga batzuen bidez erruduna nor den jakingo du. Erruduna zein den jakin ondoren, kaltetuak mendekua hartu nahiko du. Mendeku hartze hori ezdeusa izan arren –satorraren kakaren tamaina txikiaren ondorioz–, gai horiek hurrekin jorrazteko orduan, kontu handiz tratatu beharko genituzke. Baina hori alde batera utzita, hurrek (eta guk) kakaren kontu hauekin oso une atsegina pasako dute.



ITSASOARI

Testua: Aitor Manterola
Irudia: Maitane Cabeza

Gaur lasai zaude eta munduaren beste punta imajina dezaket han urrutian. Ikusi ez ditut ikusten, baina badakit han daudela kostalde guztiak, eta zuri esker, munduko edozein bazter begien aurrean ikusten dut. Lasai zaudenean, lotu egiten nauzu munduarekin. Askatasuna sentitzeko ezinbesteko katea zara. Bare-bare zaudela handia eta zabala zara. Mugagabea, ederra, askatasunaren ostatu. Zuri begira nagoela lasaitu egiten naiz, askatu. Eguzkia eta ilargia ere liluratuta dauzkazu, eta egunero ateratzen dira zu ikustera, askatasunaren uraren egarri.

Atzo ez zeunden hain lasai. Mugitu egiten zinen, handik hona, hortik hara, hemendik horra. Norabide jakinik gabe, baina musika pieza onenen harmoniarekin. Zoragarria zeunden, tarteka-tarteka irri eta aparra eginez. Kulunkan, gora eta behera. Zuri begira nengoela, neu ere gora eta behera hasi nintzen, erdi zorabiatu. Zure baitan harrapatuta ninduzun, eta pentsatu nuen bizitza bera ere zu bezalako dela: gorabeheratsua.

Bihar haserretu egingo zarela esan dute telebistan. Beraz, ezingo dizut begiratu, zu haserretzean ez baitigute uzten zuregana gerturatzen. Hala ere, badakit nola egongo zaren. Handitu egingo zara, harrotu, bat-batean lehertzeko; handitu, harrotu, bat-batean lehertu; handitu, harrotu, bat-batean lehertu. Nekatu gabe. Etengabe. Haserre zaudenean, eten egiten didazu munduaren beste puntarekin sentitzen dudana lotura. Ematen du munduko kostaldeak adina zatitan hausten zarela, bakoitzari bere zatitxo emateko. Maitasun eske jotzen dituzu bazter guztiak, zipriztin-malkotan “besarka nazazue” esango bazenu bezala, naufrago galduaren antzera.

ZER EGITEN DUTE GURASOEK GU LO GAUDEN BITARTEAN?

Testua: Imanol Azkue
Irudia: Sinéad Bux

Gauero, marrazki bizidunak bukatu eta segituan, aitak beti kontu berbera:

–Umeak! Benga! Bi gauza egin behar dituzue. Bat...

–Pijama jantzi!– Iratik eta biok.

–Eta bi...

–Komunera joan, pixa egitera eta hortzak garbitzera!

Aitak gauero kontu berbera eta nik, azkenaldian, galdera bera, oheratzeko garaia iristen denean: zer egiten dute aitak eta amak gu lo gauden bitartean?

Erantzuna jakin nahian, etxean hasi nintzen galdezka.

–Aita, galdera bat –esan nion, ohetik, muxu ematera etorri zitzaidanean–. Zer egiten duzue zuek gu lo gauden bitartean?

–Guk? Zer egingo dugu, ba? Lo! Nahi baino gutxiago, gainera!


Gero, amaren txanda.

–Ama, zer egiten duzue Irati eta ni lo gauden bitartean?

–Ja! Zer egiten dugun? Deskantsatu, Asier, deskantsatu!

–Ez zarete egoten gau osoa esna?

–Esna? Nola! Ez. Guk ere lo egin behar dugu, e?



Lagunei ere galdetu nien.

–Zer egiten dute zuen gurasoek zuek lo zaudeten bitartean?

–Ez dakit!– erantzun zidan Anderrek.

–Nik badakit!–erantzun zidan Haritzek–. Gure aitak zurrunka, seguru!

Erantzun garbirik ez. Gu ohera sartu lotara eta gurasoak hor geratzen dira, egongelan. Lo hartu bitartean, entzuten ditut biak hizketan, batzuetan barrez ere bai, eta telebistaren etengabeko marmarra. Saiatzen naiz esna egoten, baina halako batean, lo hartzen dut eta akabo, hurrengo goiza arte, seko.

Gauean, amesgaiztoarekin esnatuz gero, aitari deitu eta beti-beti-beti etortzen da, noiz deituko zain esna egongo balitz bezala. Goizean, berriz, guk begiak zabaltzerako ama beti jaikita

egoten da eta berak esnatzen gaitu, goxo-goxo garaiz bagabiltza, presaka eta bultzaka berandu baldin bada; guk ohea uzterako, ama lan pila bat eginda dago.

Beraz, ezer garbirik ez, oraingoz. Galdetzen jarraitu beharko dut. Hala ere, susmo bat badaukat, eta laster konfirmatzea espero dut: gu lo gauden bitartean, gurasoek, guk bezala, lo egiten dute, baina batez ere hasperen eta amets egiten dute. Gurean bai, behintzat: gure aita beti ari da “Ai, kiniela tokatzen zaidanean...”, “Ai, lana uzten dudan egunean...” eta antzekoak esaten, begiak zabalik, amesten.

Eta zuei zer iruditzen zaizue? Zer egiten dute gurasoek zuek lo zaudeten bitartean?

BAZEN BEHIN

Maialen Velarde Mujika

Doinua: Gogoan daukat...

-1-

Literatura, ilusioak
idazleen arsenalak
errealitate gezurri baten
justizia irrealak
bazen behin esan eta bidea
egin nahian gabiltzala
askok gizarte Express bateko
monigoteak bezala
utzi du bere ipuina beste
norbaitek idatz dezala

-2-

Nahiz hitz arteko mezu ixilez
mundua ezagutzen hasi
sarri begiak ixten dituzte
sarritan ahaztarazi
txanogorritxuz jantzi dituzten
otso maltzurrei ihesi
liburu asko izanagatik
nola ez dugun ikasi
errugabeek galdu ohi dute
errudunek irabazi

-3-

Ez dadin inor ito, batera
egitearren igeri
euren burua babesten dute
hurkoa izorra bedi
“Liliput” gisan sentitzen dira
batzuk hemen handiegi
baina “Amelinen” luzaroago
ordea ezin da segi
jarraitzaileak gutxi baitaude
txirulariak gehiegi

-4-

Tristeia, alaia, motza, luzea
hogeigarren, milagarren
ipuinak beti, bukaera bat
zorionsua zekarren
etorkizuna saltzeko nola
interes nahikoa baden
gure gidoia eraldatuaz
ahalik eta azkarren
nortzuk izango garen dakite
nor garen ez jakin arren

-5-

Izan gaitezen gure ametsen
sortzaile eta artista
istoriarik xelebreena
gurea baita aldizka
ala bazan ta ala ez bazan
orritik altxa dut bista
axota hartu ta zukanaino
nahiko nizuke irrista
norbera izan dedin norbere
ipuinaren protagonista



BELARRAREN AHOA

Arrazoi askok daramate gizakia itsasoaren bestaldean dagoen luraren bila.

Ametsa egi bihurtuko den itxaropenez zeharkatzen dute itsasoa polizoiek edo ezkutuko bidaiariek. Ez dira atseginak izaten bidaia horiek, baina nolakoa izango litzateke itsasontziaren sotoan Askatasunaren Andrearekin bidaiatuz gero?

Oso bestelakoa da itsasoz bestaldeko lurra menderatu nahi duen “gizon txikiaren” bidaia. Adorez eta ilusioz gainezka bidaia lezake Europa menderatu ondoren Manhattan bere egin nahi duenak, baina komedianteak zapuztu dio ilusioa. Izan ere, komediantearen irainak jasangaitzak zaizkio, eta ez du iraina ordainaraztea besterik buruan. Zinemaren bidez iraindu izana torturaren bidez ordainaraziko dio Hitlerrek Chaplini itsasoan barrena doazela.

Itsas bidaiak lurra ukitzean amaitzen dira, baina lurra ukitzean hasten da protagonistak aurrera egitera eramango dituen bidaia. Askatasunaren Andrearekin eta Hitlerrekin bidaiatu duten pertsonaiek topo egingo dute azken horrek lurra ukitzean. Orduan ekingo diote biek askatasunerako bidaiari, Canok modu arin, goxo eta poetikoan landuko duen lurreko bidaiari. Elkartasunaren besoetan babestuta eta idazmakina lagun, bi pertsonaia horien kemenaren berri jasoko dugu han eta hemen osatutako irudien bidez. Eta ezkutuko bidaiari izandakoaren aurpegian ikusiko dugun irribarrearen modukoa marraztuko da, agian, irakurleen aurpegietan ere.

HAIZEAK ERAMAN EZ DITZAN...

Hitzak, irudiak, objektuak, pertsonak. Haizea nekaezina da, eta ustekabeen erasaten die horiei guztiei. Nahikoa da ingurura begiratzea haizearen presentziak zer kalte eragin ditzakeen ikusteko, eta zifretan gora eta behera galtzeko.

Hitzak ere eramaten ditu haizeak. Hitzak hitz izateko, elkarri lotu eta arte eder baten tresna bihurtzeko, ezinbestekoak dira esanahia eta presentzia. Hor egon behar dute, guri begira, gure begiradaren eskean, gure arreta erakartzeko moduan, ezkutuko esanahia ageriko bihur dadin, esanahi hori geureganatu eta eskaintzeko duen guztia gozamen-iturri bihur dakigun.

Eta hortxe dauzkagu, zain, noiz iritsiko garen esperoan, hitzek ez baitute zentzurik haien presentziaz jabetzen ez garen bitartean. Horrexegatik behar dute irakurle prestu bat, ondoz ondo lotzean gauzatutako jolasaren bidez gugan hainbat eta hainbat sentimendu pizteko: alaitasuna, tristura, malenkonia, samina, goxotasuna, sufrimendua, higuina, amorrua... Imajina ditzakezun sentimendu oro, irudimenaren hatzapparretan barneratu denak irudika ditzakeen oro. Begirada beraiengan pausatuko duen norbait behar dute ezinbestean, haizeak bere egin eta gugandik urrun ez ditzan.

ZAPPING-ZALEARENA

*Pena galanta
bizitza telebista bezalako ez izatea:
zerbait maite ez
eta hura aldatzeko parada izan.*

Xabier Montoia: Bingo

Zure lanak bidali nahi badizkiguzu,
hauxe duzu gure helbidea:

irakurri_matte@euskalerria.org

